

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 30ean

Larrionek araztegia estreinatu du, Eultz eta Amillaori ere zerbitzua eman ahalko diena

Egun batzuk daramatza lanean Larriongo araztegiak. Herriari ematen dio zerbitzua egun, baina, etorkizunari begira, Allingo beste kontzeju batuetako hondakin-urak ere, hala nola Eultz eta Amillaokoak, tratatu ahalko ditu. 2017ko urrian hasi zen eraikitzen, eta gaur inauguratu da ofizialki Cursos Bajos del Urederra (Urederraren Behe Ibilguak) izenarekin. Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuaren Toki Administrazioiko zuzendari nagusi Xabier Lasak inauguratu du, zehazki.

Jurramendiko Mankomunitateko lehendakari Mariví Sevilla, Allingo alkate Eduardo Martincorena eta Larrionko kontzejuko ordezkariak aldamenean zituela, Lasak azpimarratu du Nafarroako Gobernuak Nafarroako hirigune guztiei oinarritzko toki-azpiegitura homogeen eta eraginkorren, hala nola arazketa, emateko egindako ahalegina, biztanle-dentsitatea edo kokapena bazter utzita.

NILSAko Iñaki Urrizalki kudeatzaileak, aldiz, hondakin-urek ibaira egoera optimoetan itzultzeko jasotzen duten prozesua azaldu du. NILSA enpresa publikoak proiektua sustatu eta instalazioa eraiki du, eta Jurramendiko Mankomunitateak ustiatuko du. Orain arte, lurzorura isurtzen zuten Larrionek zuzenean (135 biztanle ditu erroldak). Egungo instalazioak, Eultzeko kontzejuko lurzati batean dagoenak, iragazki biologikoak ditu ura arazteko eta atxikipen urmaelak, 287 metro koadroko azalera dutenak.

Nafarroako araztegi gehien antzekoa da, beraz. Egun, 150 araztegi baino gehiago daude Nafarroa osoan, baita 500 hobi septiko ere. Larriongoan, bestetik, 449 metroko hustubide bat egin da, Urederra ibaiaren ezker aldeko isurketa hartzeko; hustubideak ibilgua zeharkatu eta instalazioraino eramaten du isurketa, ibaiari inolako kalterik egin gabe. Bi isurketa-toki zeuden herrian: bata, ezker aldean, eta bestea, eskuinaldean. Batu egin ditu, beraz, hustubideak.

Instalazioak 1,60 litro segundoko tratatu ditzake batez beste egun bakoitzeko (138 m³/egun), eta emari hau tratatu lezake gehienez: 11,22 litro segundoko (ohikoa halako zazpi). Horrek esan nahi du beste kontzeju batuetako isurketak ere, hala nola Eultz eta Amillaokoak, hartu ahalko dituela etorkizunean instalazio handitu edo obra gehigarri egin beharrik gabe, hau da, aparteko kosturik gabe.

Inbertsioak 699.745,91 euro jo du, eta NILSAk kudeatzen duen eta zergadun guztiek uraren ordainagiriaren bidez ordaintzen duten saneamendu-kanonaren kontura finantzatu da osorik.

Une honetatik aurrera, NILSAko hezkuntza-programan sartu da araztegia. Bisita gidatuak eskaintzen ditu Nafarroako instalazio guztietara, doan eta hiru hizkuntzatan: gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez. 2018an zehar, 7.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten bisitetan zein uraren erabilerekin sentsibilizatu nahi duen programa horren gainerako jardueretan. Hona hemen batzuk: tailerrak ikasgeletan, haurrentzako jolasak, jostailuak sortzea hondakinetatik, hitzaldiak adinekoentzako egoitzetan eta ura aztertzea ibai-ertzeetan, besteak beste.

Bukatzeko, aipatu beharra dago Nafarroako Gobernuak arazketari ez ezik hornidurari ere emandako bultzada. Izan ere, Hiri-erabilera Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzentzailea 2019-2030 aurkeztu du arestian. Joan den abenduaren 21ean, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuko kontseilari Isabel Elizalde jendaurrean aurkeztu zuen hitz hauekin: "estreinako aldiz dago



plan integral bat". Orain arte, bi plan zeuden: bata, hornidurarako, eta bestea, arazketarako; azken horren esparruan eraiki da Larriongo araztegia, baita Nafarroako gainerakoak ere.

Plan zuzentzaile berriari esker, Nafarroako Gobernuak ikusmira integratzaileago, eraginkorrago eta zorrotzago baten alde egin du uraren zikloari dagokionez; horrez gain, arlo horretako araudi europarrarekin bat egiten du ikusmirak, baita aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko eszenategi global batekin bat ere. Hori dela eta, 439 milioi bideratu ditu plan horretara, eta haietako ia 400 arazketa- eta hornidura-azpiegiturak hobetu, konpondu edo eraikitzeko dira.